



BIRIKLETA

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Proiektua behar bezala aurrera eramateko hainbat eragile, faktore eta bazkide beharko ditugu.

ERAKUNDEAK

Hasteko, Osakidetzako onkologikoko arduradunekin harremanetan mantenduko gara uneoro, biriketako minbizia duten gaixoak ezagutzeko eta gure erakundearen berri emateko.

Bestalde, AECC (Asociación Española Contra el Cáncer) erakundearekin elkarlanean arituko gara beraiek duten esperientzia erabilgarria izango baitzaigu. Izan ere, Espainia mailan oso erakunde ospetsua da beraien lan bikaina dela medio.

Azkenik, zenbait diru laguntza jasoko ditugu, hala nola, Zumaiako Udaletik, Kutxa Fundazioaren bidez, Donostiako Udaletik, Urola-Kostako Udal Elkartetik... hauen laguntza ezinbestekoa izango da elkartearen garapenean. Zumaiako Udalak eskaini digun lan gunea ere beharrezkoa izango da, izan ere, biltegia eta bulegoa bertan edukiko ditugu.

HORNITZAILEAK

Dorsalak egiteko *dorsales.es* web orria erabiliko dugu eta kamisetak *creatucamiseta.es* enpresaren bidez egingo ditugu.

Hauekin, eskabide bat egin behar dugunean izango dugu kontaktua, beraz izango dugun komunikazio fluxua ez da konstantea izango. Harreman honen helburua gure elkartean saldu edo emango diren produktuak lortzea izango da. Honetarako, beraiengana *facetime* bidez zuzenduko gara, harreman estuagoa izan eta gure produktuetan zer bilatzen ari garen argi uler dezaten.

BAZKIDEAK



BIRIKLETA

Hiru sponsor izango ditugu; Aquarius, Eroski eta Forum Sport hain zuzen ere. Hiru enpresa hauek lasterketa egunean beraien laguntza emango digute. Aquarius freskagarrietaz arduratuko da, Eroski supermerkatua elikagaiez eta Forum Sport aldiz, lasterketa amaieran egingo den zozketaz.

Harreman hau positiboa izango litzateke guztiontzat, izan ere, guk lasterketarako beharrezkoak diren baliabideak lortu bitartean beraiak gizartearen aitortza lortuko lukete, kausa solidarioak babesten duten marka bezala.

Lasterketa aurrera eramateko hainbat boluntario beharko ditugu, horretarako *Gizalde* erakundetik beraien laguntza eskaini digute. Lasterketa egiterako orduan partehartzaileen segurtasuna bermatuko dute. Zerbait gertatuz gero ere, beraiak arduratuko dira 112 zerbitzura deitzen.